

Jon Unanue ehun milen bila


Ehun mila, hau da, 168 kilometro. 11.000 metroko desnibel positiboa. Datu guztiak jarritz gero, edonor ikaratu daiteke Ehunmilak lasterketaren aurrean. Bada, hori gauzatzea da Jon Unanueren helburua. Uztailaren 10ean, Beasaineko irteeran, helburu bat izango du buruan: lasterketa amaitzea.

Jon Unanuerentzat ez da gauza berria Ehunmilak lasterketa. “Ibilbide laburra, 88 kilometrokoa, egin nuen behin eta luzea birritan saiatu naiz egiten, baina ezin izan dut amaitu”. Ono gogoratzen ditu kausak. “Lehen urtean neutralizatu egin ninduten ekaitza zeto-rrelako, 58 km-an. Asko falta zen, eta dena gogorra: Txindoki, Aizkorri... laz 30 km-an, Gorlan, erretiratu egin nintzen. Amari deitu eta bila etortzeko esan nion. Ezin nuen jan, hainbat kilometrotan jarraitu nezakeen, baina ez nukeen amaituko”. Ez da atsegina hainbeste prestatu duzun lasterketa uztea, “baina gorputzari kasu egin behar diozu”.

Lasterketa hau egiteko fisikoki oso ondo egon behar dela aitortzen du Unanuek,

baina lasterketan zehar “garrantzitsuena alde psikologikoa da”. Berak helburu txikiak jartzen dizkio bu-ruari, helmugan pentsatu gabe. “Orain tontor hartara iritsi behar naiz, ea bi ordutan hornikuntza puntura iristen naizen... horrela”.

Ondo daki lasterketan zehar edozer gauza gertatu dakiokela, baina “disfrutatzea” nahi du, bidea oso polita delako. “Gainera, jende asko ezagutzen duzu. Korrikalari asko doaz eta, adibidez, gaueko ez dakit zein ordutan baten batekin elkartzten zara eta jendea ezagutzen duzu”, dio. Izan ere, aurreikuspenen arabera denborarik onena egingo duenak 24 ordu ingurutan beteko du ibilbidea, “gutxi batzuk” Unanueren ustetan. Izan duen esperientziaren arabera, berak




atseden puntuetan deskan-tsatuko duela uste du, arropa aldatu eta abar, “gehienon helburu amaitzea delako”.

Unanuek ez du prestakuntza berezirik egin Ehunmilak lasterketarako. “Prestatzeko denbora askorik ez daukat. Ono prestatu beharreko lasterketa da eta kontziente naiz nire prestakuntza ez dela ona, ez nik nahi izango nuena behintzat. Saiatu naiz ahal dudanean kirola egiten, Urkora igo, dantzara astero joan... Azken finean, sasoi-egon, zaindu, ondo jan, ez erre, eta abar”.

30 urterekin hasi zen

Unanue mendian korrika egiten. “Anaiarekin Hiru Handiak egitera joan nintzen eta mendian korrika egiteko ohitura hartu nuen”. Berak nahiago du mendia errepidea baino. “Errepideko pare bat maratoi egin ditut eta oso gogorra egin zait. Ez da mendian moduan. Mendian zuk ipintzen duzu zure erritmoa”. Era berean, fondoko lasterketak nahiago ditu laburrak baino, 20 kilometroko lasterketei laburrak deitu ahal bazaie. Uztailaren 10ean 168 kilometro izango ditu aurrean. Behingoz bete nahi dituen ehun milak.

Ekhi Velar



Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitaratekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08